



ITURENGO UDALA

(Nafarroa)
31745

Jose Maria Alzuri Vertiz
Arkaitz Mindegia Baleztena
Pedro Francisco Mindegua Elizalde
Miren Ilarregui Belarra

2024ko abenduaren 20an, 14:15ak direnean, ohiko osoko bilkuran elkartzen dira Iturengo Herriko Etxean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. Francisco Javier Bereau Miquelarena —Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Izaskun Mielgo Rey. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

1. PDR dirulaguntza onartzea. Alkate ebazpena 124/2024 berretsi

Udaletxeko ganbaran sukaldea berritu nahi da eta dirulaguntza eskatzeko 124/2024 alkate ebazpena bidez onartu zen. Gaia azaldu ondoren Udalburuak bozkatzera deitu eta Udalbatzak **hurrengoa erabaki du aho batez:**

1. 124/2024 alkate ebazpena berretsi egiten du.
2. Akordioa interesatuari jakinaraztea.



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

“ALKATE JAUNAREN EBAZPENA.
2024/124 Zka.

Dirulaguntza

2023-2027 Landa garapeneko Programako
diru-laguntzen deialdia ikusirik,

Francisco Javier Bereau
Miquelarena, Iturengo
alkatea naizen honek,

XEDATZEN DUT:

1. Diru-laguntza eskaera abiaraztea, udaletxeko ganbararen sukaldea berritzeko proiekturako dirulaguntza eskatzea erabaki da 7119.02.01 azpineurriaren barnean, partaidetzazko toki garapenaren estrategiak, sustatzaile publiko eta pribatuentzat, 2024eko deialdian (LEADER-Nekazaritza Politika Erkidearen Plan Estrategikoa Navarroatik, 2023-2027).

2. Udal-Bilkurari aurkeztea ebazpen hau, berretsi dezala eskatuz.

”

RESOLUCIÓN DEL SR. ALCALDE.

Nº 2024/124

Subvención.

Vista la convocatoria de ayudas PDR
2023-2027

Francisco Javier Bereau
Miquelarena, alcalde del Ayuntamiento
de Ituren

RESUELVO:

1º.- Se acuerda solicitar ayuda para el proyecto reforma de la cocina del desván del ayuntamiento, dentro de la submedida 7119.02.01 para la Ejecución EDLP: promotores públicos y privados (LEADER-PEPAC 2023-2027) en la convocatoria de 2024.

2º.- Someter esta Resolución a la ratificación del Pleno del Ayuntamiento.”

2 BAGALDE ETA GANBELAR OIHAN ENKANTEA: ESLEIPENA

Udalbatzak kontratazio mahaiak egindako proposamena eta proposatutako enpresak aurkeztutako dokumentazio administratiboa zein fiantza aztertu ditu.



ITURENGO UDALA

(Nafarroa)
31745

Zehazki, kontratazio mahaiak, Altzuri Mendi Lanak SL. enpresari oihan enkantea esleitzea proposatu zuen, honek eskaintza ekonomikoan aurkeztutako prezioan: 33.836,54 BEZ kanpo (HOGEITA HAMAHIRU MILA ZORTZIREHUN ETA HOGEITA HAMASEI EURO ETA BERROGEITA HAMASEI XENTIMO).

Eskaintza irekiera egunaren proposamenaren ondotik, eta hau argitaratu ondoren, ez da "sexteo"-an eskaintza berririk jaso.

Udalburuak bozkatzera deitu eta Udalbatzak aho batez **hurrengo erabaki du:**

- 1.- Altzuri Mendi Lanak SL. enpresari esleitzea enkantean ateratako lotea 33.836,54 eurotan, BEZ kanpo.
- 2.- Esleipenaren kontratua sinatzeko Alkatea izendatzea Udal ordezkari.
- 3.- Akordioa zein kontratua Nafar Gobernura bidaltzea mozketaren baimena eskatuz, esleitutako lotea markatu eta atera ahal izateko.
- 4.- Akordioa esleipendunari jakinaraztea."

Eta bertzerik ezean, 14:35ak direnean, alkate jaunak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.

